

Euskarazko literatur sormena sustatu eta bultzatu nahian, Barakaldoko Kultur Ekipamenduen Hurbileko Sareak Mikrokontakizunen X. Lehiaketarako deialdia egingo du.

1. Hala nahi duten 16 urtetik gorako guztiek har dezakete parte lehiaketa honetan euskarazko kategorian.
2. Parte-hartzaileek **mikrokontakizun bat** idatziko dute, eta bertan **“ileak laztu”** hitzak sartuko dituzte, derrigorrean.
3. Mikrokontakizunak, **“ileak laztu” KONTATU GABE, gehienez 20 hitz** izango ditu. Nahi izanez gero, izenburu bat ere jarri ahal izango zaio, eta izenburuko hitzak ere ez dira kontatuko.
4. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 2 mikrokontakizun aurkeztu ahal izango ditu, beti ere oinarri hauek xedatzen dituzten betekizunak aintzat hartuta.
5. Kontakizunak originalak, argitaragabeak eta aurrez saritu eta/edo argitaratu gabek izango dira.
6. Kontakizunak **“Whatsapp”** edo **“Telegram”** bidezko mezu baten bitartez bidaliko dira ondoko telefono zenbakira: **683 544 781**, inolako izen edo identifikazio-daturik adierazi gabe.
7. Mikrokontakizunak bidaltzeko epea **2025eko apirilaren 1eko 00:01etik apirilaren 15eko 23:59ra** egongo da zabalik. Epe horretatik kanpo ez da mezurik onartuko.
8. Honako sari hauek banatuko dira:
 - 1. Saria: 200 €
 - 1. Akzesita: 150 €
 - 2. Akzesita: 150 €
9. Epaimahaia komunikazio, hizkuntza eta literatura alorreko profesionalak osatuko dute. Epaimahaia apelaezina izango da, eta epaimahaia ebatziko du oinarrietan agertzen ez den edozein gorabehera. Sariak eman gabe ere gera litezke.
10. Epaimahaia 20 mikrokontakizunik onenak hautatuko ditu, ondoren horien artean sarituko diren 3 lanak aukeratzeko. Finalistak zein saritutako 3 lanak BarakaldoEuskaraz gizarte sareetan (Facebook, X, Instagram, Telegram) argitaratuko dira.
11. Sariak 2025eko maiatzaren 15ean Barakaldo Antzokian egingo den Sari Banaketa ekitaldian emango dira jakitera.
12. Ez dute lehiaketan parte hartzerik izango ez epaimahaikideek, ez zuzenean antolakuntzarekin zerikusia duen inork.
13. Barakaldoko Udalaren Kultura Arloak lan guztien jabetza bereganatuko du, baita eurak erakutsi, berregin edo argitaratzeko eskubidea ere. Lanak Udalaren kultur ondare bihurtuko dira eta ezin izango dira salerosi.
14. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak oso-osoan onartzen direla esan nahi du. Aurkezteko baldintzak betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honetan adieraziko dituzun datuak Kultur Aretoko Lehiaketetako partaideen datu-fitxategi batean erregistratuko direla; horren helburua deialdietan parte hartzen duten hautagaiak ezagutzea da; informazioa Barakaldoko Udalaren Kultur Arloko langile eta arduradunek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Barakaldoko Udala izango da (Herriko Plaza, 1).

Informazio gehiago:

683 544 781
euskara@barakaldo.eus

Antolatzailea:

Babeslea:

